



# ZIGARROTXOA AHOZ AHO

*Antton Kazabon*

**Desclée De Brouwer**



## I

—Arratsalde on, ama!

—Zer, gaur agur eta guzti? Berdin, berdin! Iguale-  
mente, Mizel.

—Gaur ez noa entrenamendura, ama. Ez nago oso  
ongi, eta gainera biharko azterketa prestatu behar dut.

—Beno, beno, Mizel. Hori da aldaketa, hori! Barka-  
tu, baina zuk futboleko entrenamenduak aspaldi utzi  
zenituen. Eta azterketa prestatzeko etxean gelditzeko  
kontu hori harrigarri samarra egiten zait. Beno, hori ez  
da harrigarria, hori sinestezina da; beraz, gezurra.

—Txorakeriak, ama. Ez badut ikasten, txarra; eta  
ikasten badut, gezurra. Esango didazu nola asmatu  
behar dudan zurekin!

—Ea, Mizel. Guk ederki ezagutzen dugu elkar, eta  
esadazu behingoz zer gertatu den gaurkoan. Utzi alde



batera alferrikako ipuinak, eta emadazu behingoz ikastolan eman dizuten ohar hori.

—Zer ohar, ama? Zer ari zara esaten? Niri ez didate oharririk eman.

—Mizel, emadazu, mesedez, tutoreak edo irakasleak idatzitako oharra. Lehenengoa balitz!

—Beno, beno, lasai, ama! Oraintxe eman behar nizun. Ez du garrantzirik.

—Eta zer egin duzu oraingoan? Gutxi ikasi, batere ez, gelan traba egin, norbaiti astakeriaren bat esan... Horiek guztiak ezagunak ditut. Oraingoan zerbait berria egingo zenuen, bada?

—Esan dizut. Txorakeria bat. Eta beste askotan bezala, nik errurik ez, baina niretzat pastela. Tori eta irakurri zerorrek.

—Ekarri. Fimatuko dizut eta kito! Eta niri ez ekarri berriz horrelakorik! Aita ere nazka-nazka egina daukazu eta. Oraingoa isilik pasako dut, baina hurrengoa aitak sinatuko dizu.



—Ez duzu deus ere sinatu behar ama. Irakurri. Bilera egin behar duzue tutorearekin, edo zuzendariarekin, edo ez dakit norekin.

—Zer? Bilera? Baina zer arraio egin duzu oraingoan?

—Orain dela ordu erdi bat esan dizut irakurtzeko, ama.

—Zigarroa erretzen harrapatu zaituztela ikastolan, Mizel? Hori ere ba al dugu? Hara, zerbait berria nahi nuen, eta zuk bai bete ere usu arraio nire desioa. Oraingoan zerbait berria egin duzu.

—Baina, ez da egia, ama. Nik ez dut erretzen, eta gainera ez naute horretan harrapatu. Nire ondoan zigarro-punta bat aurkitu du zaintzako irakasleak, eta galdetu ere egin gabe, badakite nirea dela zigarro-punta hura. Eta han jende asko geunden.

—Nola diozu? Gezurra dela? Eta nola deitu gaituzte bilerara gezurra bada? Oraingoan ere zuri sinestu beharko dizut, noski; irakasleak gezurretan ari dira eta zu egiatan.



—Egia da, ama. Ez naute erretzen harrapatu. Nik ez dut erretzen eta nire lagunek ere ez.

—Eta, orduan nola joan da zigarro-punta zikin hori zure ondora? Haizeak eramango zuen, beharbada? Baina tuntuna naizela uste al duzu? Mesedez, Mizel. Ez adarrrik jo. Erretzea gutxi dela, gainerik gezurra. Erretzen baduzu, erretzen duzu, eta kito! Onar ezazu zure akatsa eta ez beste bat erantsi zure buruari. Zigarro-punta zure ondoan bazegoen, zuk edo zure lagunek egotzia izango zen.

—Ezetz, bada, ama. Guk ez dugula erretzen! Hirugarren eta laugarren mailako batzuk erretzen dute, baina bigarren mailakook ez.

—Eta zu zer ari zinen hirugarren eta laugarren mailakoekin? Zigarro-punta zure ondoan bazegoen, eta zure mailakoek ez baduzue erretzen, horrek esan nahi du zu ez zeundela zure mailakoekin, handiekin, baizik.

—Beno, batzuetan horiekin elkartzen naiz jolas garaian. Badakizu lagun zaharragoak ere baditudala.



—Bai, bai. Lagun zaharragoak badituzu, baina zigarroak erretzen ikasteko. Ez zara azterketak prestatzeko elkartuko, ez. Horretarako ez daukagu arriskurik.

—Beno, ama, nahi baduzu sinestu, eta ez baduzu nahi, ez sinestu. Nire ondoan zegoen zigarro-punta ez zen nik botatakoa. Baina ikastola horretan, badakizu, edozer gauza gertatzen dela, erruduna Mizel. Gaur etxean gelditu banintz ere, zigarroa nik errea izango zen.

—Bai, Mizel, bai. Arrazoi duzu. Irakasle denek paketea dizutela eta kontu hori guztia bota behar didazu beste behin ere? Ez, mesedez. Hori ez duzu zeuk ere sinesten; beraz, nik gutxiago. Orain ea aita nork ematzen duen. Gozoa jarriko da oharra irakurtzen duenean.

—Eta zergatik irakurri behar du aitak? Bilerara zu joan eta horrekin aski da. Gainera, aitari bost axola nire arazoak. Orain arte ez da kezkatu eta orain hasiko al da, bada, nirekin arduratzen?



—Aita zuk uste baino gehiago kezkatzen da. Bilerara biok joango gara oraingoan. Badakizu. Erretzen hasteko hainbeste gizondu bazara, aitarekin hitz egiteko ere gizonduko zinen.

—Nik zer esan behar diot aitari?

—Ba, hori. Ez duzula erretzen. Eta horregatik deitu gaituztela ikastolara bilerara, erretzen ez duzulako. Lehenbailehen erretzen has zaitezen aholkuak emateko edo.

—Aski da, ama. Horrenbeste txantxa gehiegi izango da zigarro nazkagarri batengatik. Nik ez dut erretzen, baina erreko banu ere ez litzateke hainbesterako izango. Ez dut uste zigarro bat erretzea hain larria denik. Horrekin ez dut inor hiltzen, behintzat.

—Inor ez duzula hiltzen? Zure burua ari zara hiltzen. Ez al zaizu nahiko larria iruditzen? Segi orduan aurrera. Baina gero ez etorri nigana laguntza eske, zigarroak eta antzekoak mendean hartzen zaituzte-nean.



—Noraino zoaz, ama? Zigarro batez ari gara. Zer sartu behar didazu orain, drogamenpekotasunari buruzko txapa?

—Ez, ez, lasai, Mizel. Ni nola hasiko naiz, bada, zuri irakasten, zuk dena jakinki eta. Ikastolako bilera-ren bueltan hitz egingo dugu eta kito.

Eta ikastolako pulamentuaren haizeak, zuzendariaren bulegoraino eraman zuen Mizelen zigarro-punta madarikatua.